

ZONALDEKO BILERAK: DEIALDI BEREZIA

BILERAREN HELBURUA: IGEEN KUDEAKETARAKO "SIGA" PROGRAMA INFORMATIKOA IGEEI AURKEZTEA.

Azken hilabeteetan Federazioko IGEei jakinarazi izan diegunez, badugu programa informatiko bat elkarteen kudeaketarako lagungarria. Ezkio-Itxasoko GARAPEN enpresak dagoeneko amaitua du programa, eta egokia iruditu zaigu eskualde bilerak antolatzea, IGEei programa horren ezaugarrien eta funtzionamenduaren berri emateko.

Deialdi honi atxikita igortzen dugu programa informatikoaren ezaugarrien laburpena, baita programa irakasleek ere erabiltzeko modua izan dezaten egin dakioken zabaltzea ere, ikastetxearen eta familien artean denbora errealeko komunikazioa lortzeko aukera emango duena.

Era berean, gogorarazi nahi dizuegu zer baldintza ekonomiko finkatu diren IGEentzat, programa informatiko hau ezartzeko: programa instalatzea eta lehenengo hiru hilabeteetako funtzionamendua dohainik izango dira IGEarentzat. Lehenengo hiru hilabete horietan, IGEak aztertu egingo du programa edukitzea komeni zaion edo ez, eta horren arabera erabakiko du programa erabiltzen jarraitu edo alde batera utzi nahi duen. Programa erabiltzen jarraitzea erabakiz gero, hilean 19 euroko kostua izango du, mantentzeagatik, eta kostu horren barruan sartuta daude telefono bidezko laguntza, segurtasun kopiak eta aurrera begirako hobekuntzak.

Oharra: programa gaztelaniaz dago, oraingo, eta horregatik igortzen dizuegu hari buruzko informazio atxikia gaztelaniaz soilik. Programaren euskarazko bertsioa sortzeko finantzaketa bila ari gara.

Bilera egunak hauexek dira:

1. **"DONOSTIA" eta "OARSOALDEA"**: Pasaia, Donostia, Errenteria, Lezo, Oiartzun.
Eguna: azaroak 10, osteguna. Ordua: 18.30etan
Batzar tokia: Baigararen egoitzan (Donostia)
2. **"GOIERRI"**: Legazpia, Urretxu, Ormaiztegi, Beasain, Ordizia, Ataun, Idiazabal, Altzo, Zegama, Zaldibia, Segura, Legorreta, Itsasonso, Gabiri, Ikaztegieta, Olaberria, Amezketeta, Abaltzisketa.
Eguna: Azaroak 14, astelehena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: Urdaneta Ikastetxea – Lehen Hezkuntzako eraikuntzan (Ordizia).
3. **"LASARTE-HERNANI-TOLOSA"**: Hernani, Andoain, Lasarte, Tolosa, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Alegia, Berastegi, Aduna, Alkiza, Bidegoian,,Albistur
Eguna: azaroak 16, asteazkena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: Lasarteko Institutuan
4. **"KOSTA"**: Zumaia, Getaria, Zarautz, Orrio, Usurbil, Aia.
Eguna: Azaroak 21, astelehena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: Lizardi Institutua (DBHko egoitzan) Zarautz
5. **"BIDASOA"**: Irún, Hondarribia.
Eguna: azaroak 23, asteazkena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: DUMBOA LHI ikastetxean - IRUN
6. **"DEBA BEHEA"**: Soraluze, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Deba.
Eguna: Azaroak 24, osteguna. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: San Andrés Ikastetxea (Eibar)
7. **"DEBA GOIENA"**: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola, Elgeta.
Eguna: azaroak 28, astelehena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: Arrasate Institutua (DBHko egoitza)
8. **"UROLA"**: Azpetia, Azkoitia, Aizarnazabal, Zestoa, Errezil
Eguna: azaroak 30, asteazkena. Ordua: 18.30etan.
Batzar tokia: Karmelo Etxegarai Ikastola (Azpetia) /Perdillegi eraikinean (Lehen Hezkuntza)

Baso – Txiki, 36 – atzealde . 20015 Donostia

E-Mail: baikara@baikara.org

Tel: 943 327208 Fax: 943 274 977

Web orria: www.baikara.org